

Haurren urtebetetze festak ospatzeko ere Erreserba Programan izena eman behar da, behar bezala bete eta dagokion "Ordainketa-orria" bete. Bestetik, kanpotik ekarritako botilei kortxoak kentzeagatik ordaindu beharreko kuota ordaindu behar da eta baita haur/mahaikide bakoitzeko dagokiona ere, "Urtebetetzea" atalean, haur bakoitzeko. Kontuan izan, nahiz eta sukaldea ez erabili, maha zapiak eta mantelak, komunak, aire girotua eta berogailua... erabiltzen direla. Haurrak mahai eta sofa gainean ibiltzen ez direla kontrolatuko da. **Ezin dira bizikletak, patinak, pilotak...sartu, behar ez diren harriskuak ekiditzeko. Haurrak ezin dira ez sukaldean en barran sartu.**

Bazkideak eta bere lagunek sortutako ekintzen ardura, bazkidearena izango da.

**Urtebetetze festak egiteko ordutegia: 16:30-19:30**

**Urtebetetze festak egiteko egunak: Astelehenetik ostiralera. (lan egunak)**

## **BOTILAK JASOTZEA**

### **EZIN DIRA BOTILAK BARRAN EDO ESTALKIETAN UTZI.**

Botilak bukatzean bere tokian utzi behar dira

#### **PLANTXA, HORRELA GARBITZEN DA:**

- Piztu eta berotu arte itxaron (200°)
- Izotzarekin eta espatularekin garbituko dugu, koipea ustubidetik atereaz.
- Plantxa garbitu arte gauza bera egingo dugu.
- Koipearen kax ustu eta garbitu egiten da.

**2;**Bazkidearena da bere gonbidatuen ekintza eta ez-egiteen ardura. Gonbidatuek ezin dute bakarrik egon, bazkideak bertan egon behar du beti".

**7;** Egoitza sozialera adin txikikoekin sartzen direnek arreta berezia jarri beharko dute haurren, elkartean daudenak gogaitu ez ditzaten eta bertako ondarea eta higiezinak errespetatu ditzaten.

**13;** Erreserbak mahaikide kopuruaren arabera egingo dira. Horrela, bi mahaikideko, mahai txiki bat erreserbatu daiteke. Mahai handi bat erreserbatzeko eskubidea izateko, sei mahaikide etorri behar dira gutxienez. Eta beste mahai bat erreserbatu daiteke, bai txikia edo handia, hamar mahaikide aurrera.

**Ezin dira mahaiak laukian jarri, eserleku asko galtzen baitira.**

**17;** Bata bestearen gainean jar daitezkeen plastikozko aulkiak eta mahaiak kanpora atera daitezke "Taberna" zerbitzua emateko. Horrelakoetan, nahitaezkoa da zonaldea eta mahaiak garbitzea eta azken horiek zeuden lekura bueltatzea.

**19;** "Xaia" gela 18 urtetik gorakoek soilik erabil dezakete telebista ikusteko, irakurtzeko edota jolasteko. Haurrek ezin dute sartu.

**20;** Haurrek badute telebista-gela bat.

Haurrekin helduren bat egotea saiatu behar dugu. Gela horretan **ezin da pilota, patinete eta antzeko jostailurik sartu.**

**27;** Barra garbi mantendu behar dugu. Ez dugu gainean ezer utziko. Garbiketa erraztu behar dugu, tresnak dagokien lekuan utziz.

**30;** Sukaldean, gehienez ere, erreserba bakoitzeko bi lagun sar daitezke.

**34;** Garbiketa behar bezala egiteko, erabili ditugun tresna guztiak dagozkien edukiontzietan sartu behar ditugu. Kazolak dagokien lekuan eta uretan sartuta.

**37;** Bazkide guztiok, elkartean ikusten diren arazo guztien berri Batzarrari eman behar diogu, ahalik eta azkarren konpontzeko. Komunikazio hau, "Irakokizun eta Kexa" orria bete eta bulegora bidali daiteke posta elektronikoz, edo elkartean bertan dagoen postakutxan sartuz.

**38;** Bazkide bati araudiaren aurkako zerbait egiten ari dela ohartarazteko eskubidea daukagu bazkide guztiek. Ohartarazpen guztiak errespetu osoz egingo ditugu beti, nor garen adierazita bazkide bezala. Guztion artean, jangela hobetu dezakegu, eta araudia ezagutzen ez duten bazkideei, araudia ezagutzera eman. Horrela, Kluba, guztiontzat toki atsegina izatea lortuko dugu.

